	GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA	Bide Azpiegituretako Departamentua	GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ERREPIDEETAKO ZARATAREN MAPA ESTRATEGIKOAK. EUSKADIKO AUTONOMIA ERKIDEGOA. EKINTZA PLANA 2008
---	-------------------------------------	---	--

**GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
ZARATAREN MAPA ESTRATEGIKOAK.
EUSKADIKO AUTONOMIA ERKIDEGOA.
EKINTZA PLANA 2008**

(7-ES-509/2008)

2008ko abendua




1. Deskribapena

Ekintza planaren esparrua Gipuzkoako errepide sarea da, hasiera batean zarataren mapa estrategikoak (hemendik aurrera ZME) eginak dauzkaten bideguneetan fokatuko dena, 2005ean urteko 6 milioi ibilgailu baino gehiagoko trafikoa izateagatik definitu zirenak hain zuzen ere, 2202/49/CE Europar Zuzentarauak eta Zarataren 37/2003 Legeak 2007an errepideetako ZME-ak derrigortasunez burutzeko ezartzen duten muga baita.

Aztertutako bideguneek 195 km osotzen dituzte 9 mapa estrategikoko unitateetan (MEU) banaturik. Ondoko taulan identifika daitezke eta ondoren datorren mapan eskematikoki adierazirik azaltzen dira:

MEU	KODEA	Bidegunea	Luzera (km)
1	A-8/AP-8	Irun (0 KP) – Eibar (75 KP)	78,3
2	N-634	Usurbil (0,5 - 4,5 KP) + Elgoibar (57,5 KP) – Eibar (66,5 KP)	13
3	N-638	Hondarribia	1,5
4	GI-131	Urnieta – Hernani + Hernani – Donostia/S.S. (Loiola)	10,2
5	GI-627	Arrasate/Mondragón (37 KP) – Bergara (39 KP)	2,3
6	GI-632	Beasain (0 KP) – Zumarraga (11 KP)	11
7	GI-2132	Donostia/S.S. (Errekalde) – Hernani + Errenteria - Oiartzun	4,9
8	GI-3401	Donostia/S.S.: Miramón- GI-2130 (Hernani) + Martutene-Garbera	3
9	N-1	Idiazabal (407 KP)-Donostia/S.S. + Donostia/S.S (462 KP)-Irun (477 KP)	70,8
	Guztira		195


2007ko zarataren mapa estrategikoetarako aukeratutako MEU-ak



MEU-etan bildutako bideguneen deskribapena

2. Agintari Eskudunak

Europar Parlamentuko eta ingurugiro zarataren ebaluazio eta kudeaketaren inguruko 2002ko ekainaren 25eko Kontseiluko Zuzentarauaren (Ingurugiro Zarataren Zuzentaraua) transposizio legez onartutako Zarataren azaroaren 17ko 37/2003 Legeko 4. artikulua, besteren artean administrazio publiko ezberdinek zarataren mapa bakoitzari dagokion kutsadura akustikoaren ekintza planak prestatu, onartu eta berraztertu eta publikoari informazioa emateko garaian dauzkaten eskuduntzak zehazten ditu. Horrela, estatu mailako eskuduntza duten azpiegiturak salbu, aipatutako arauaren laugarren ataleko a) hizkian, mugapen hori araudi autonomikora ekartzen du. Baina Euskadiko Autonomia Estatutuaren arabera- 10.34 artikulua- zein Lurralde Historikoetako Legea deiturikoaren arabera-7. eta 8. artikulua- Lurralde Historikoak dira bide azpiegituren alorrean eskuduntzak aitorturik

	GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA	Bide Azpiegituretako Departamentua	GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ERREPIDEETAKO ZARATAREN MAPA ESTRATEGIKOAK. EUSKADIKO AUTONOMIA ERKIDEGOA. EKINTZA PLANA 2008
---	-------------------------------------	---	--

dauzkatena, eta haien garapenean beren erakundeek Lurralde Historiko bakoitzeko errepide eta bideetako erregimen juridiko pribatiboa arautu dute.

Hau horrela izanik, Gipuzkoako Foru Aldundiak araudiak derrigortasuna ezartzen zuen bideguneetako ZME-ak egiteari ekin dio. Eta une honetan administrazio honi dagokio, agintari eskuduna den heinean, eta Bide Azpiegituretako Departamentuari bereziki, Ekintza Plan hau prestatu eta onartzeko inizatiba eramatea.

Azpitarratzekoa da Bilbo-Behobia A-8 Autopista eta Eibar-Gasteiz A-1 Autopistetako gipuzkoar bideguneen mantentze, zaintze eta esplotatzea "Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia-Agencia Guipuzcoana de Infraestructuras S.A." Foru Sozietate Publikoari dagokion arren, haien titulartasuna, Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepide Sarearen Katalogoan dauden errepideak diren neurrian, administrazio honi dagokiola (ekainaren 6ko 1/2006 Foru Dekretu Araugilea (errepide eta bideetako Foru Arauaren Testu Bategina)). Beraz, Ekintza Planak 1. MEU-ari dagokion bidegunea hartzen du, nahiz eta kudeaketaren ardura Bidegi-rena izango den.

3. Testuinguru Juridikoa

Ingurugiro Zarataren Zuzentzarauak haren helburuen artean zaraten mapetan oinarritutako ekintza planak burutzea dauka, beharrezkoa den guztietan ingurugiro zarata prebenitu eta murrizteari begira eta, bereziki, eraginpe mailak gizakien osasunean ondorio kaltegarriak izan ditzaketenean, eta ingurugiro akustikoaren mailari eusteko hura egokia denean.

Honen inguruan indarrean dagoen arauaren aplikagarritasun esparrua emisore akustikoen erreferentziak mugatzen da, gure kasuan bide azpiegituretako, haien titulartasuna duten administrazio publikoen ardura izanik aipatutako ekintza planak abiatzea.

Plan horiek erdibideko instrumentu legeaz azaltzen dira, prebentziozkoak zein zuzentzaileak izan daitezkeenak. Haien norainokoa zarataren mapen lurraldeko esparruei dagokie, eta kutsadura akustikoarekin loturiko gaiei modu globalean aurre egiteko asmoa kontuan izanik, kalitate akustikorako helburuak betetzen ez direnerako lehentasunezko ekintzak ezarri eta neurri txikian ematen den guneetan kutsadura akustikoa handitzea prebenituko dute.

Zarataren azaroaren 17ko 37/2003 Legeak, aipatutako planak arautzen ditu III. kapituluko 2. atalean, arautze hau erregelamenduzko araudian garatu delarik. Zehatzago, urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuan, zeinaren bidez azaroaren 17ko 37/2003 Zarataren Legea garatzen den, zonakatze akustiko, kalitate helburu eta emisio akustikoei dagokienez; eta bereziki abenduaren 16ko 1513/2005 Errege Dekretuan, zeinaren bidez azaroaren 17ko 37/2003 Zarataren Legea garatzen den ingurugiro zarataren ebaluazio eta kudeaketari dagokionez (10. eta 11. artikulua eta 5. Eranskina).

4. Mugako balioak

Aplikagarriak diren mugako balioak 1367/2007 Errege Dekretuan definitutakoak dira, ondoko II. Eranskineko A eta B taulatan azaltzen direnak hain zuzen ere.

II. ERANSKINA

Kalitate akustikoaren helburuak

A Taula. Zaratarentzako kalitate akustikoaren helburuak existitzen diren urbanizatutako eremuetara aplikagarriak direnak.

Gune akustikoaren mota		Zarata indizeak		
		L_d	L_e	L_n
e	Lurraldeko sektoreak zeinen zoruan kutsadura akustikoaren aurrean babes berezia eskatzen duten osasun, hezkuntza eta kultur erabilerak nagusi diren.	60	60	50
a	Lurraldeko sektoreak zeinen zoruan bizitzeko erabilera nagusi den.	65	65	55
d	Lurraldeko sektoreak zeinen zoruan c) atalean azaltzen ez diren hirugarren sektoreko bestelako erabilerak nagusi diren.	70	70	65
c	Lurraldeko sektoreak zeinen zoruan jostetako eta ikuskizunetarako erabilerak nagusi diren.	73	73	63
b	Lurraldeko sektoreak zeinen zoruan industri erabilera nagusi den.	75	75	65
f	Garraio azpiegitura orokorrera, edo eska ditzaketen bestelako ekipamendu publikoetara, loturiko lurraldeko sektoreak. (1)	Zehaztu gabe	Zehaztu gabe	Zehaztu gabe

- (1) Lurraldearen sektore hauetan kutsadura akustikoa prebenitzeko neurri egokiak hartuko dira, bereziki eragin akustiko txikiena duten eskura dauden teknologi hobereenak aplikatuz, azaroaren 17ko 37/2003 Legearen 18.2 artikuluko a) atala jarraituz.

5. Ekintza planaren norainokoa

Planaren oinarrizko helburua hurrengo urteetarako jarduerak modu egokian bideratzea da, batzuk jadanik aurreikusita daude, haien finantzaketa eta gauzatzea modu koordinatuan egin dadin. Horretarako, Zarataren Mapa Estrategikoen (ZME) datuak bildu dira eta zarataren kudeaketarako sistema abiatu da jarduteko gune posibleak definitzeko. Gune bakoitzeko jarduteko aukerak aztertuz lehentasunak ezarriko dira, denboran programatzeko garaian irizpide bat egin dadin.

Proposatzen den Ekintza Plana zarata emititzen duen fokua den administrazioak sortu eta kudeatutako plana da, kasu honetan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko errepideak. Honek jarduera posibleak planteatzeko garaian izaera administratiboa duten mugak eragiten ditu.


Bide Azpiegiturek Departamentuak ez dauka eskumenik lurraldearen ordenazio eta urbanismoan eremu publikoko esparruetatik eta zortasun eta legeriaren eskakizunetatik eratorritako inplikazioetatik kanpo. Testuinguru honetan jarduteko aukerak Bide Azpiegiturek Departamentuaren berezko eskumenetara mugatzen dira.

6. Zarata kartografiatze lanaren emaitzen laburpena

Gipuzkoako errepideetako zarataren kartografiatzea aldi berean helburu ezberdinekin planteatu da, zarataren mapa estrategikoak egiteko eskakizuna betetzeaz gain Gipuzkoako errepideetako zarataren kudeaketan aurrera egin nahi izan da ekintza plan errealista eta eraginkorra planteatu ahal izateko.

Beraz honako hauei ekin zaie:

- Zarataren mapa estrategikoei
- Urtean 3 milioi ibilgailu baino gehiago daukaten errepideetarako zarata mapa globalei
- Zarataren eragina murrizteko konponbideen azterketarako aukeratutako bideguneen xehetasunezko ikerketei

	GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA	Bide Azpiegituretako Departamentua	GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ERREPIDEETAKO ZARATAREN MAPA ESTRATEGIKOAK. EUSKADIKO AUTONOMIA ERKIDEGOA. EKINTZA PLANA 2008
--	-----------------------------	--	--

Zarataren Mapa Estrategikoek (ZME) urtean 6 milioi ibilgailu baino gehiagoko trafikoa duten bide ardatz nagusi legez identifikatu diren bideguneak estali dituzte, lehenago deskribatutako bederatzi Mapa Estrategikoaren Unitateetan (MEU) sailkatuak. ZME-ak burutu eta informazio publikorako aldiaren ondoren onartzearekin 2002/49/CE Europar Zuzentarauaren aplikazioaren lehen fasearen eskakizuna eta dagokion estatu legeriarako transposizioa den 37/2003 Zarataren Legea eta Gipuzkoako Foru Sareko Errepideetarako 1513/2005 Errege Dekretua betetzen da.

2002/49/CE Zuzentarauak era honetan deskribatzen du Zarataren Mapa Estrategiko bat: **“gune jakin batean, zarata iturri ezberdinak direla eta, zarataren eragina globaltasunean ebaluatu ahal izateko, edo gune horretarako iragarpenak egin ahal izateko diseinatutako mapa da”**.

Aipatutako ebaluazioa egiteko aukera mapek eman behar duten informazio multzoaren arabera izango da:

- Soinu mailen banaketa ikerketarako esparruaren azalera.
- Erasandako guneen identifikazioa, horretarako ezarritako adierazleen eta ebaluazio mugen arabera.
- Aurreko adierazleen arabera soinu maila jakinen eraginpean dagoen azalera eta pertsona kopurua kuantifikatzea.

Mapak Europar Batzordera bidaltzea eta era berean populazioaren artean zabaltzeko oinarria izatea ahalbidetzen duen formatua izateko helburu bikoitzarekin planteatu dira. Haiek egiteko Ingurugiro Ministerioaren zehaztapenak jarraituz errepide bakoitzari modu berezitan egiten diote erreferentzia- mapa estrategikoaren unitate (MEU) bihurtzen direnak- emaitzak ezarritako formatuetan aurkeztuz:

- Soinu mailen mapak, 4 metroko altueran, L_{den} , L_d , L_e eta L_n indizeetarako eta 5 dB(A)-tako mailatan sailkatuak.
- Eraginpe mapak L_{den} , L_d , L_e eta L_{n+} indizeetarako, zeinetan zorutik 4 metrora fatxadetan ematen diren mailak eta etxebizitza soinu maila jakinetan zarataren eraginpean dauzkaten pertsonen kopurua adierazten diren.

- Erasandako guneen mapak, L_{den} aldiari dagozkionak, zeinetan muga balio jakin baten gainditzea ematen deneko ikerketarako gune bat identifikatuko den.

Xehetasunezko ikerketak hasiera batean eragin gehien daukatenen artean egon edo egoera tipo ezberdinen adierazgarriak izateagatik aukeratutako bideguneetan burutu dira. Helburua ekintza alternatibak ikertu, baloraziorako irizpide objektiboak aztertu, ikertutako bideguneetan zarataren murrizketa lortzeko konponbide egokiak eta ekonomikoki proportziozkoak ezartzeko, eta lehentasunezko jardura eskatzen duten errepideetako beste bideguneetara zabalduz doan neurrian zehaztuz joan beharko den ekintza planerako erreferentziatzko metodologia ezartzea izan da.

7. Zarataren eraginpean dagoen pertsona kopuruaren ebaluazioa, arazoaren eta hobetu beharreko egoeren zehaztapena

MEU bakoitzean eraginpean dagoen populazio osoaren datuen taula eta eguneko aldi ezberdinetan harturik, 5 dB(A)-tako mailatan sailkatuz, laburbiltzen da:

Pertsona kopurua (ehunka)												
	1. MEU-a: A-8 / AP-8				2. MEU-a: N-634				3. MEU-a: N-638			
dB(A)	L_{den}	L_n	L_d	L_e	L_{den}	L_n	L_d	L_e	L_{den}	L_n	L_d	L_e
50-54	-	148	-	-	-	20	-	-	-	3	-	-
55 - 59	189	56	111	97	30	15	18	14	4	2	3	4
60 - 64	92	18	43	37	15	8	17	15	3	1	3	2
65 - 69	32	4	14	9	14	1	12	7	2	0	2	1
>70	-	0	-	-	-	0	-	-	-	0	-	-
70-74	8	-	4	2	6	-	3	0	1	-	0	0
>75	2	-	0	0	0	-	0	0	0	-	0	0



Pertsona kopurua (ehunka)												
dB(A)	4. MEU-a: GI-131				5. MEU-a: GI-627				6. MEU-a: GI-632			
	L _{den}	L _n	L _d	L _e	L _{den}	L _n	L _d	L _e	L _{den}	L _n	L _d	L _e
50-54	-	15	-	-	-	0	-	-	-	9	-	-
55 - 59	19	7	14	10	0	0	0	0	17	4	7	6
60 - 64	10	7	7	6	0	0	0	0	6	4	4	4
65 - 69	6	2	7	6	0	0	0	0	4	1	4	3
>70	-	0	-	-	-	0	-	-	-	0	-	-
70-74	6	-	3	2	0	-	0	0	3	-	2	0
>75	1	-	0	0	0	-	0	0	0	-	0	0

Pertsona kopurua (ehunka)												
dB(A)	7. MEU-a: GI-2132				8. MEU-a: GI-3401				9. MEU-a: N-I			
	L _{den}	L _n	L _d	L _e	L _{den}	L _n	L _d	L _e	L _{den}	L _n	L _d	L _e
50-54	-	6	-	-	-	3	-	-	-	156	-	-
55 - 59	9	3	6	8	24	2	17	19	224	82	176	167
60 - 64	6	1	5	5	4	0	3	3	133	27	97	81
65 - 69	4	0	3	3	2	0	2	2	61	5	37	31
>70	-	0	-	-	-	0	-	-	-	1	-	-
70-74	1	-	0	1	0	-	0	0	22	-	13	7
>75	0	-	0	0	0	-	0	0	4	-	2	2

Azkenik, ondoko taulan Gipuzkoako Errepide Sareko MEU guztiek erasandako populazio osoaren batuketa erakusten da, aurrekoen batuketa dena hain zuzen ere:

Pertsona kopurua (ehunka)				
MEU-ak GUZTIRA GIPUZKOA-n				
dB(A)	L _{den}	L _n	L _d	L _e
50-54	-	360	-	-
55 - 59	516	171	352	325
60 - 64	269	66	179	153
65 - 69	125	13	81	62
>70	-	1	-	-
70-74	47	-	25	12
>75	7	-	2	2

Kontuan izanik Kalitate Akustikoaren Helburuek (KAH-ak) 65 dB(A)-tako maila ezartzen dutela L_d eta L_e indizeetarako eta 55-ekoa L_n, indizerako, ondoko taulan KAH horiek adierazitako balioen edo altuagoen (gorriz adierazitakoak) eraginpean dagoen populazioa laburbiltzen da, eta horrekin batera ZMEetako ebaluazio atarien gainetik dagoen populazio osoa. Ikus daitekeenez, L_n indizea kontrakoena da.

Pertsona kopurua (ehunka)				
MEU-ak GUZTIRA GIPUZKOA-n				
dB(A)	L_{den}	L_n	L_d	L_e
≥65	179	-	108	76
≥55	964	251	639	554
≥50	-	611	-	-

$L_n \geq 55$ dB(A) indizearen mailak eragindako populazioari soilik begiraturaz, aurreko tauletatik MEU-en eragina jasotzen duen populazioaren ondoko taula lortzen da, arazoak baloratu

eta hobetu behar diren egoerak identifikatzeko lehen erreferentzia dena, beraz, burututako ikerketetatik ateratako informazio gehigarriarekin batera, xehetasunezko ikerketetarako lehentasunen aukeraketarako baliagarria izango da.

Pertsona kopurua (ehunka)	
MEU-ak GIPUZKOA-n	
MEU	L_n ≥ 55 dB(A)
N-1	115
A-8/AP8	78
N-634	24
GI-131	16
GI-632	9
GI-2132	4
N-638	3
GI-3401	2
GI-627	0

Erreferentzia hauek zarataren kudeaketa sistemaren garapenean lortzen joango direnekin batera, lehentasuna duten xehetasunezko ikerketak aukeratzeko erreferentzia izango dira, hasiera batean N-1 eta A-8/AP-8 errepideetan zentratuko direnak, nahiz eta identifikatutako beste egoerak ere kontuan hartuko diren, zeinetan justifikatzen dituzten baldintza gehigarrien arabera zarataren aurka babesteko jarduerari ekin ahal izango zaie.

8. Zarataren Legearen 22. artikulua jarraituz informazio publikorako tramitean jasotako alegazio edo oharra

ZME-ei egindako lau alegazio heldu dira, orokorrean zarata murriztu edo errepideen hobekuntzetarako jarduera zehatzen erreferentzia egiten dute, ekintza plana abiatzeko eskaerarekin batera. Guztiak ezetsiak izan dira informazio publikoan erakusten diren mapa estrategikoen helburu eta xedea ez baita gune jakinetan hartu beharreko konponbideak definitzea, maila globalean, eta ez tokikoan, erabakiak hartzeko tresnak baizik; eta azken hauek izango dira ondoren maila puntualeko konponbideak hartzea ahalbidetuko duten xehetasunezko ikerketak behar izango dituztenak.

Gipuzkoako Foru Aldundiak zarataren mapa estrategikoak burutu ditu legeak haien derrigortasuna ezartzen zuen bideguneetan. Behin betiko onartutakoan, zarataren mapa estrategikoei dagozkien soinu kutsaduraren alorreko Ekintza Planak prestatu, eta behar denean, onartuko dira. Orduan, eta ez lehenago, egin beharreko xehetasunezko ikerketak burutuko dira eta, nola ez, interesatuek nondik norakoan berri izango dute.

9. Dagoeneko zarata murrizteko aplikatzen diren neurriak eta prestatze fasean dauden proiektuak

2006an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegiturek Departamentuak bidegune baten lehen ebaluazio ikerketari ekin zion neurri zuzentzaileak hartzeko asmoz, eta horretarako trafiko intentsitate handiko eta etxebizitzak hurbil zituen bidegune bat aukeratu zuen, Donostiako bariantean Loiolatik Amara Berrirako bidegunea hain zuzen ere.

Ondoren, urte berean, zarataren kudeaketaren sistema baten garapena abiatu zuen, 2007 urtean zehar eta 2008ko lehen hilabeteetan osotzen joan dena, errepideetako zarataren ebaluazio eta kudeaketarako oinarriak ezartzeko helburuarekin, ekintza plan bati ekin baino lehen ezinbesteko urratsa dela kontuan hartuz.

Lan honetan erasan handiko bost bidegune aztertu ziren, ezaugarri ezberdinetako errepideen artean aukeratutakoak, eta haietarako hobekuntza jarduerak proposatzen dira, kudeaketa sistemaren proposamenek jarraituz eraginkortasun eta kostu/irabazi parametroen arabera sailkatuko direnak hain zuzen ere.

Sistemaren garapena 2008an abiatzen da, erasandako populazio gehien duen N-I errepideko bideguneetarako konponbideen ikerketarako azterketa espezifikoak gehituz, eta hiri guneetan eragina murriztera bideratutako neurriak hartzeko aukerak ebaluatzeko errepideko zarataren aurreko jarduerak definitzeko ebaluazio espezifikoak egiten hasi diren Udalekin elkarlanean arituz.

Era honetan jadanik ekin egin zaie neurri zuzentzaileak ezartzeko ikerketei ondoko bideguneetan:

Errepidea	Bidegunea	Urtea
N-I/A-8	Donostia-San Sebastián bariantea: Loiola/Amara Berri	2006
N-I	Lasarte-Oria	2007
N-I	Billabona	2007
N-634	Eibarko bariantea	2007
N-634	Usurbil	2007
N-I	Beasain	2008
N-I	Ordizia	2008
N-I	Idiazabal	2008
N-I	Donostia-San Sebastián bariantea: Intxaurren	2008
N-I	Tolosa	2008
AP-8	Zarautz: Vista Alegre auzoa eta bidesari gunea	2008

Gainera 2007an dauden errepideetan pantaila akustikoen zertze proiektuak abiatu egin dira, ondoren azaltzen den kasuetan:

Errepidea	Bidegunea	Pantaila kopurua	Urtea
N-I/A-8	Donostiako bariantea: Loiola	1	2007-08
N-I	Tolosa: pantaila akustikoaren luzapena	1	2008
GI-631	Zumarraga: pantaila akustikoaren berriztapena	1	2008

Egun egindako bestelako ikerketetan oinarriturik aukeratutako lehentasunezko konponbideak ezartzen jarraitzeko lehen proiektuak garatzen ari dira.

Modu osagarrian, errepide berrietan Ingurumeneko Eraginaren Neurketarako ikerketetan soinuari dagokion atala burutzen da eta horien ondorioz hainbat errepidetan pantaila

akustikoak kokatu dira, GI-631 errepideko Zumarragako Bariantean duela urte batzuk tunelen absortzio tratamendua barne zuen ezarritako babesaz gain:


Errepidea	Bidegunea	Urtea
GI-632	Beasain – Zumarraga bidegunea	2006
AP-1	Bergara	2007
GI-131	Urumeako autobidea: Astigarraga-Hernani	2007
A-8	3. erreia ezartzea: Errenteria- Oiartzun	2007

Baina horrez gain errepide berriak egiteak trafikoa hiri-gune zein ingurabideetatik, Gipuzkoako orografia dela eta hiri-guneetatik oso hurbil daudenak, ateratzea suposatu du. Atal honetan aipagarriak dira duela gutxi abiatu direlako:

- AP-1 Maltzaga eta Arrasate/Mondragon artean, Soraluze eta Bergara udalerrientzat onuragarria izanik.
- Urumeako autobidea, Astigarraga eta Hernani artean, Astigarraga udalerrientzat onuragarria izanik.

Prestatzen ari diren hainbat proiektu existitzen dira, aurreratze gradu diferentetan daudenak, soinu kutsaduraren murrizketa suposatuko dutenak, egun erasandako guneetan eragingo duten hobekuntzagaratik zein errepide berrietan zarataren aurrean babesteko neurriak hartzeagaratik. Ondoko taulako errepide berriek hiri-guneak zeharkatzea saihestuko dute, erasandako udalerritarako zarata iturri nagusiak direnak.

Errepidea	Bidegunea
	Donostiako 2. ingurabidea
AP-1	Arrasate/Mondragón Leintz-Gatzaga-rako bidegunea
N-634	Eibarko bariantea osotu: 3. Fasea.
N-634	Zumaiako bariantea
N-634	Zarauzko bariantea
GI-632	Zumarragako ingurabidea
N-I	Andoaingo diseinuaren eraldaketa
GI-131	Urumeako autobidea osotzea

	GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA	Bide Azpiegituretako Departamentua	GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ERREPIDEETAKO ZARATAREN MAPA ESTRATEGIKOAK. EUSKADIKO AUTONOMIA ERKIDEGOA. EKINTZA PLANA 2008
---	-------------------------------------	---	--

Azken urteotako esperientziak, zeinetan azpiegitura berrien proiektuetan eta errepideen kudeaketan zarata kontuan hartu den, oinarria izango ditugu hurrengo bost urtetarako proposatzen den ekintza planaren garapenerako eta epe luzera Gipuzkoako errepideetako zaratarekin erabili beharreko estrategia definitzeko.

10. Agintari eskudunek hurrengo bost urteetarako aurreikusitako jarduerak, gune lasaiak babesteko neurriak barne


Aurreikusitako jarduera zuzentzaileak ondoko lan ildoetan sailkatzen dira:

- Foru errepide sarerako zarata kudeatzeko sistema baten garapena
- Konponbideak aztertu eta gauzatzea
- Udalekin elkarlana
- Gipuzkoarako ingurugiro zarataren informazio sistema garatzea
- Gune lasai eta espazio naturalak babestea
- Ikerkuntza eta kutsadura akustikoa hobetzeko programak

Foru errepide sarerako zarata kudeatzeko sistema baten garapena:

Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegiturek Departamentutik 2007an garatu den zarata kudeatzeko sistema ezarriko da, ekintza planari modu eraginkorren ekiteko helburuarekin. Ebaluaketa xeheak, lehentasunen identifikazioa, garapenaren jarraipena eta abar abiatzeak Gipuzkoako errepide sarean zarataren aurkako jarduerak modu eraginkorren garatzea ahalbidetuko du.

Kudeaketa sistemak, hainbat aspektu osotu eta hobetzea behar badu ere, zarata murrizteko zuzentze jardueren beharra izan dezaketen egoeren azterketa xehea burutzeko metodologia ezarri du. Metodologia honek erasanak, lehentasuneko irizpideak eta konponbide posibleen balorazioa neurtzeko irizpideak definitu nahi ditu, kostu eta irabazi irizpideak erabiliz, konponbideen proportzionaltasuna ezarri ahal izateko. Izan ere, ekintza plana jadanik abiatu da lehenago adierazitako bideguneetako ikerketa xeheekin.

	GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA	Bide Azpiegituretako Departamentua	GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ERREPIDEETAKO ZARATAREN MAPA ESTRATEGIKOAK. EUSKADIKO AUTONOMIA ERKIDEGOA. EKINTZA PLANA 2008
--	-------------------------------------	---	--

Proposatutako kudeaketa sistemak eskatutako beste ekintzak abian jartzen joan behar du: diziplina anitzeko planteamenduak egitea bermatuko duen zarata kudeatzeko barne egitura, erantzukizunak, ebaluazioak, jarraipenak eta ekintza planek behar dituzten informazio eta garapenerako bitartekoak hobetzea lortzeko jarduerak, ingurugiro heziketa eta dibulgazio jarduerak.

Konponbideak aztertu eta gauzatzea:


Konponbideak aztertu eta gauzatzea ekintza planeko aurrekontuaren alderik handiena eramango duen atala da, eta haren jarduerak errepidean bertan arituz ezar daitezkeen konponbideetan bilduko ditu. Konponbideak, helburu horretarako egindako xehetasunezko ikerketan oinarriturik, gutxienez errepide nagusietarako definitutako diren soinu-zortasun guneetan erasandako populazioa murriztera bideratuko dira, ekonomikoki proportziozkoak diren neurriak aplikatuz.

Zarataren aurkako neurri zuzentzaileak hartzeak, lurralde antolamenduan, urbanismoan eta errepidearen ustiapenean eragin handia izaten dituzten jarduerak eskatzen ditu maiz. Halere, existitzen dira egoera akustikoak zeinetan posible den populazioaren parte batek jasaten dituen zarata mailak murrizten lagun dezaketen pantaila akustikoak ezartzea.

Bestalde, gaur arte egindako xehetasunezko ikerketetan antzeman egin dira hainbat gune non errepidearen zaratak jota gomendatutakoak baino zarata maila altuagoak jasaten dituen populazioa dagoen, pantaila akustikoak ezartzea zalantzarria izanik horrek izango duen eraginkortasun eskasa edota ezartzeko zailtasun fisikoak direla eta. Gune hauetan, etorkizuneko jarduerari, "jarduera konplexuak" izena hartzen dutenak, guneko plan espezifikoaren bidez ekin beharko zaie.

Hasiera batean, jarduerak zehazteko ondoko irizpideak jarraituko dira:

- Eraginpe mailak: Jarduerak ZME-etan bildutako errepide sare partearen zarata maila altuenak dauzkaten guneetan zentratuko dira.
- Erasandako populazioa: Jarduerak erasandako populazio handiagoa duten bideguneetan zentratuko dira. Halere, erasandako populazio gutxiagoko gune

	GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA	Bide Azpiegituretako Departamentua	GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ERREPIDEETAKO ZARATAREN MAPA ESTRATEGIKOAK. EUSKADIKO AUTONOMIA ERKIDEGOA. EKINTZA PLANA 2008
---	-------------------------------------	---	--

bereziak aztertuko dira eta baita ere hezkuntza zein osasun eraikinak dauden kasuetan.

- Bideragarritasun teknikoa: pantailen ezarpena burutzeko benetako aukera ebaluatuko da, pantailen proposamena baztertuz leku nahikorik ez dagoen edo segurtasun baldintzek gomendatzen ez dutenean.
- Ageriko eraginkortasuna: pantailak ezartzeko aukera baztertu egingo da jasotzailearen kokapena dela eta (adibidez jasotzailea bidea baino askoz goragoko kota batean kokatzen denean) edo arrazoi teknikoek, segurtasunak edo proportzionaltasun ekonomikoak pantailan eragindako neurrien murrizketak direla eta- gunean edo babestu beharreko eraikinetan ageriko eraginkortasunik erakusten ez dutenean.


Aurreko irizpideak kontuan izanik, lehentasunezko jarduera eskatzen duten errepideak N-I eta A-8/AP-8 ditugu.

Azkenik, errepide berrien proiektuek, behar diren neurri zuzentzaileak izateaz gain, hiri-guneen barianteak bihurtuko dira zarata bidezko eragina murriztea ahalbidetuz.

Udalekin elkarlana:

Errepideetako zaratak udalerrietako ingurugiroaren zaratan duen eragina garrantzitsua izan daiteke egungo eraginagatik zein garapen urbanistikoari ezar diezazkiokeen mugengatik. Hori dela eta Gipuzkoako errepideetako zarataren mapak prestatzea planteatzen da, Aldundiaren menpe dagoen informazioa hartu eta soinu-zortasun guneak mugatu ahal izateko, udal planeamenduetan sar daitezen.

Hain zuzen ere, zortasun gune hauetan mugak aplikatzeko garaian dugu Udalekin elkarlana bilatzeko unea, lurraldeko sektore horietako egungo edo etorkizuneko ekintzen eta errepideetako berezkoen bateragarritasuna erraz dadin. Zentzu honetan, kooperazioa bilatuko da errepide sarearentzat lehentasunezko zatitza jo ez diren egoeratan interes komunak lortzeko.

	GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA	Bide Azpiegituretako Departamentua	GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ERREPIDEETAKO ZARATAREN MAPA ESTRATEGIKOAK. EUSKADIKO AUTONOMIA ERKIDEGOA. EKINTZA PLANA 2008
---	-------------------------------------	---	--

Gipuzkoarako ingurugiro zarataren informazio sistema garatzea:

Udalekin eta departamentu ezberdinekin jarduerak koordinatzeko asmoarekin Jasangarritasun eta Geografia Informazioko Sistema Departamentuekin elkarlanean arituko da Gipuzkoako Ingurugiro zarataren informazio sistema bat ezartzeko Lurraldean zarataren planteamendu globala egin ahal izan dadin.

Gune lasai eta espazio naturalak babestea:

Gune lasai eta espazio naturalei dagokienez, lehen urratsa identifikatzea litzateke ondoren haiek babesteko ekintza plana planteatu ahal izateko. Horregatik, atal honetako ekintza plana behin espazio hauek eta haietan errepide sareak duen eraginaren baloraziotik abiatuta haietarako eskakizunak zehaztutakoan definituko da.

Ikerkuntza eta kutsadura akustikoa hobetzeko programak:

Kutsadura akustikoaren ebaluazio eta kontrolean ematen den esperientzia oso txikia da eta ebaluatze eta kudeaketarako irizpideak ezarri zein hobetzeko bestelako neurriak hartu baino lehen aurretiko ikerketak burutu behar dira problematikak, emaitzak, populazioaren pertzepzioak, konponbideen eraginkortasunaren hobekuntzak eta abar antzemateko zarataren kudeaketa sistema definitzeko erabilitako ildo jarraituz.

Horregatik, ekintza planarekiko osagarri gisa eta epe luzerako helburuetan pentsatuz zarataren aurreko babes ekintzaren eta abiatzen diren jardueren ebaluazioen planteamendu hobea definitzea ahalbidetuko duten ikerkuntza eta garapen jarduerak abiatuko dira.

11. Epe luzerako estrategia

Bost urterako ekintza plan honen helburua kudeaketa sistema osoaren garapena lortzea da. Bertan errepideen gehiegizko zarata maila duten egoerak konpontzeko hobekuntza progresiboa eragin behar duten ekintza planak txertatu behar dira, beti ere ematen diren neurriek ahalbidetzen dutenean edo bestela zentzuzko neurrian arintzen diren kasuetan. Horretarako, jarduera alternatiba desberdinak uztartuko dira ekintza planaren lehen faseetako ikerketetan lortutako ondorioetatik abiatuta.

Helburu honekin, zarataren kudeaketarako berezko sistemak abiatu nahi dira, neurri zuzentzaileez gain, garraio publikoaren erabilera sustatu eta eskualdeen arteko trafikoa hiri gunetatik hurbil zirkulatzea ekidingo duten mugikortasun jasangarrirako politiken bidez, trafikoa handitzen jarraitzea saihesteko jarduerak ere kontuan hartuz.


Prebentziozko neurriak lehentasunezkoak dira, zortasun guneen eta haien hiri garapenerako behar dituzten baldintzen errespetuan oinarriturik emango direnak.

12. Informazio ekonomikoa

2006 urtetik, Bide Azpiegiturek Departamentuak Gipuzkoako errepide sareak eragindako zarataren ebaluazioari, ekintza planaren garapena barneratzen duen zarataren kudeaketa sistema ezartzeari eta eragin handiena jasotzen duten bidegunetan jarduera zuzentzaile zehatzetarako ikerketei aurrekontu espezifikoak egokitzen aritu da erreferentziazko informazioa izan ahal izateko lehentasunezko jarduerak zehazteko orduan.

Modu honetan errepideko zarataren kudeaketa eta neurri zuzentzaileak hartzearekiko jarduera espezifikoa sortzen ari da, logikoki helburu horretarako aurrekontuak izatea suposatuko duena, garatzen ari diren azterketa eta aurrekontu aukeren arabera zehaztuko direnak.

Halere azpimarratzekoa da soinuaren egoeraren hobekuntza suposatuko duten jardueren parte inportante bat ez dela zarataren aurreko jarduera espezifikotzat jasoko, bide sarearen hobekuntza legez baizik: errepide berriak, hiri gunetarako bariantek, badiren

	GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA	Bide Azpiegituretako Departamentua	GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ERREPIDEETAKO ZARATAREN MAPA ESTRATEGIKOAK. EUSKADIKO AUTONOMIA ERKIDEGOA. EKINTZA PLANA 2008
---	-----------------------------	--	--

errepideetako hobekuntzak... Aurrekontu handiak izango dituztenak hauek guztiak baina zaila egiten dena errepideek eragindako soinu kutsadura murrizteari espezifiki egokitutako aurrekontua bereiztea.

Helburua soinuaren murrizketa Gipuzkoako Foru Aldundiaren errepide sarearen hobekuntza planetan beste aldagai bat bezala sartzera eta zarata kudeatzeko sistema eraginkor bat abiatzea da, nahiz eta oraindik ezin den zarata murrizten lagunduko duten jarduerak hurrengo urteetako aurrekontuetan izango duten pisua zehaztu.

13. Ekintza planaren aplikazioa eta emaitzak ebaluatzeko aurreikusitako xedapenak

Proposatutako kudeaketa sistemak helburu hau dauka. Bertan ebaluazio, garapena neurtzeko adierazleen eguneratze eta erabaki hartzea oinarritzeko sistematika bat gehitzen da. Haren garapena eta ezarpena osotzeak haren balioa kontrastatzea eta doitze eta hobetze proposamenen beharra identifikatzea ahalbidetuko du.


Kudeaketa sistemaren abiatzea ebaluazioa eta Gipuzkoako errepideetako zarataren eboluzioa neurtzeko adierazleak zehaztea suposatuko du.

14. Erasandako pertsona kopuruaren murrizketaren estimazioa

Gipuzkoako errepideetako zaratak eragindako erasanaren murrizketa epe luzerako plan legez planteatzen da, lehenengo fase batean plana eta kudeaketa sistemaren diseinua eskatzen duena, helburu honetarako bideratu daitezkeen baliabideak modu efizientean aprobetxatzea ahalbidetuko duen plan eraginkorra definitzeko. Horregatik, helburu nagusia ez da lehen plan honetan Gipuzkoan errepidearen zaratak erasandako populazioaren datu globaletan murrizketa nabaria lortzea, denbora epe luzeagoa beharko litzatekeelako egungo egoerarekiko hobekuntza orokorrak lortzeko.

Gainera, kontuan hartu behar da ekintza plan honen bost urteetan zehar erabaki daitezkeen jartueretako asko ez direla denbora tarte horretan gauzatu, eta bestalde



	GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA	Bide Azpiegituretako Departamentua	GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ERREPIDEETAKO ZARATAREN MAPA ESTRATEGIKOAK. EUSKADIKO AUTONOMIA ERKIDEGOA. EKINTZA PLANA 2008
---	-------------------------------------	---	--

ikerketa esparrua nahiko zabaldu behar dela 2012 urtean egin beharreko hurrengo ZME-etan, beste bidegune batzuk erasandako populazioa gehitu behar izango delarik.

Halere, plana indarrean dagoen aldian gauzatuko diren jarduerak gehien erasandako populazioaren kasuan zaratarekiko eraginpearen murrizketa ekarriko dute, horren norainokoa ekintza plana beraren garapenean aurrera egin arte zehazteko aukera ez izanik.